

# Xiberuko Maskaradak Aiztondon



Aiztondon bost herrietako lan-talde bat ia urte betez ari da prestatzen festa hau. Hona hemen gutxi gehiago zer izango den aste bukaera hau. Egunak iritsi ahala prentsan jasoko duzu honen berri, baina zuretzat hemen aurrerapen bat.



Xiberüan maskaradak jokatzen ari dira udaberri buelta honetan, apirilaren 30 arte. Aurten, Pettarra eskualdeko zenbait herritako gazteek emango dituzte maskaradak: Ezpeize-Ündüreine, Ürrüstoi Larrabile, Ainharbe, Sarrikota, Onizepea eta Mitikileko gazteek.

Aurten badugu ordea, nobedade bat. Xiberütarrak, hegoaldera etorriko dira beraien sasoiak bukatu eta aste batera. Aiztondora etorriko dira beraien azken maskaradak jokatzerara!!

**MAIATZA 7an izango da bisita!**



Alkizako  
Udala



Asteasuko  
Udala



Adunako  
Udala



Larraulgo  
Udala



Zizurkilgo  
Udala



Afari eta bazkari herrikoirako tiketak bailarako ostatuetan salgai maiatza 3 arte.

## Maiatzak 6 (larunbata)

Arratsaldeko 6tan ongi etorria xiberütarrei Asteasuko Plazan. Ondoren zintzur bustitze animatua.

Ilunabarreko 8tan afari herrikoia Asteasuko Usarrabi Frontoian.

Ekarri zure musika tresna!!

## Maiatzak 7 (igandea) *Maskaradak*

Goizean

10tan: Asteasun barrikadak.  
11tan: Alkizan barrikadak.  
12tan: Adunan barrikadak.  
13ean: Zizurkil Goian barrikadak.

Arratsaldean

14.00: Bazkari herrikoia Larraulgo Frontoian.  
16.30: Maskarada Jokoak Larraulgo Plazan.